

# Informatizatutako Gizarteak eta Identidadea

(Computerized Society and Identity)

Arregi, Joseba  
Parlamentario del Parlamento Vasco  
Gipuzkoako Buru Batzarra  
Hernani, 15  
20004 Donostia

[www.ikg.euzkadi.net](http://www.ikg.euzkadi.net)

---

*Telekomunikazioak definitzen ari diren mundu berriaren aurrean, garrantzizkoa da galdera egokiak formulatzen asmatzea, gehiegitan erantzunak agurogi datozkigulako, horrela berria izan daitekena ezkatuz. Zalantzarik gabe, joera berriak gauzatzen ari dira. Baina guzia berri dela esatea bide bat izan daiteke benetan berria, diferentzialki berria dena, ezkutatze, ez ikusteko. Telekomunikazioek dakartena zera da: gizakiari berezkoa zaion erreflexibitatearen indartze izugarri bat. Honetan zer da betikoa, zer berria? Eta zer ikusi dauka erreflexibitatearen haunditze izugarriak orainartean identidade bat osatzeko beharrezkoa zela uste zen normatibitatearekin? Normatibitatearik gabe osa daiteke identidadetik? Zein da normaren, identidadearen eta askatasunaren arteko harremana infokomunikazioek irekitzen duten giroinguru berrian?*

*Giltz-Hitzak: Infokomunikazioa. Identidadea. Norma. Askatasuna. Erreflexibitatea. Globalizazioa. Denbora. Ukazioa. Aukerak. Berrikuntza.*

*Ante el nuevo mundo que está siendo definido por las telecomunicaciones es importante acertar en la formulación de las preguntas pertinentes, dado que en demasiadas ocasiones las respuestas nos llegan con excesiva rapidez, ocultando de esa manera lo que puede resultar nuevo. Sin lugar a dudas, las nuevas tendencias se están sustanciando. Pero decir que todo es nuevo puede ser un modo de ocultar lo que es auténticamente, diferencialmente, nuevo. La aportación de las telecomunicaciones es la siguiente: un enorme reforzamiento de la reflexividad natural de la persona humana. ¿Qué es lo de siempre y qué es lo nuevo en este terreno? ¿Y qué relación tiene esa enorme ampliación de la reflexividad con la normatividad que hasta ahora se creía indispensable para conformar la identidad? ¿La identidad puede construirse sin normatividad? ¿Cuál es la relación entre la norma, la identidad y la libertad en el nuevo espacio abierto por las infocomunicaciones?*

*Palabras Clave: Infocomunicación. Identidad. Norma. Libertad. Reflexividad. Globalización. Tiempo. Negación. Oportunidades. Renovación.*

*Face au monde nouveau qui est en train de se définir par les télécommunications il est important de bien formuler des questions pertinentes, car trop souvent les réponses arrivent trop rapidement, cachant de cette façon ce qui peut se révéler nouveau. Sans aucun doute, les nouvelles tendances se définissent. Mais dire que tout est nouveau peut être une façon de cacher ce qui est authentiquement, différenciellement, nouveau. La contribution des télécommunications est la suivante : un énorme renforcement de la réflexivité naturelle de la personne humaine. Qu'est-ce qui a toujours existé et qu'est-ce qui est nouveau dans ce domaine ? Et qu'elle est la relation entre cet énorme renforcement de la réflexivité et la réglementation que l'on croyait indispensable jusqu'à maintenant pour conformer l'identité ? L'identité peut-elle se construire sans réglementation ? Qu'elle est la relation entre la norme, l'identité et la liberté au sein du nouvel espace ouvert par les info-communications ?*

*Mots Clés: Info-communication. Identité. Norme. Liberté. Réflexivité. Globalisation. Temps. Négation. Opportunités. Renovation.*

Hitz ezberdinekin adierazita, bainan ustez behintzat gertaera berdina gogotan delarik, han eta hemen, gaur bai eta bihar ere bai, eratzen diren hitzaldi, kongreso, ihardunaldi eta bilera ugari antolatzeak berak argi erakusten du zerbait gertatzen ari dela gure artean, gure gizarteetan, pentsatu, formulatu, aztertu beharreko zerbait. Batzutan telekomunikazio hitza erabiltzen da, bestetan informatizazioa. Batarekin eta bestearekin loturik globalizazioa ere pentsagai eta azterketagai da. Multimedia, network edo sare gizartea, telematika: asko dira erabiltzen ditugun hitzak. Nik infokomunikazio hitza erabiliko dut hitzaldian zehar.

Azken batean axola duena, ordea, ez da zein hitz erabili: nahiz eta aipatu dudan ekitaldi guzi hoiek ezezaguna eta bere ondorioetan domeñatua ez den zerbait hitzen bitartez esaneko bihurtu nahi izatearen zantzu garbia izan gehienetan. Gizakiok uste baitugu zerbait gure hitzetan biltzen dugun bezain pronto gure esaneko bihurtu dugula, azkenean morrontza bikoitz batean erortzen garela atzeman gabe: eskumeneko ez dugun zerbait horren morrontzan, eta esaneko bihurtu dugularen ilusioa sortarazten digun hitz-fetitxearen morrontzan.

Horregatik, hitzak alde batera utzi, eta hitzen magiarekin loturik egon daiteken morrontzatik askatu ahal izateko hitzak erabiltzea beste erremediorik gelditzen ez bazaigu ere, azterketa bultzatzen duten hitzak dira erabili beharko ditugunak, axala urratu eta sakonago dagoena ikusten laguntzen duten hitzak, ustezko erantzunen ilusioa baino gehiago galderek sortzen duten egonezinari bidea irekitzen dioten hitzak dira, nire ustean, erabili behar ditugunak.

Bizi ditugun eta oraindik ikusteko gauden gertakizun konplexuen aurrean berehala erantzuna berekin duten esplikazioak enaten hastea baino hobe da beraz galdera egokiak formulatzen saiatzea. Hortara mugatuko dut nire ahalegintxo hitzaldi honetan: ez dut gertatzen ari denaren, eta honek izango dituen ondorioen esplikazio osorik, ez beterik. Galderak ditut, eta horiek formulatzen saiatuko naiz. Kontutan izanik, noski, galderak formulatzeak berak orainartean ohizkoa dugun pentsamoldea bera zalantzan jartzea eskatzen duela. Hau da: galderak formulatu ahal izateko beharrezkoa da orainartean osaturik dugun pentsamoldea haustea, edo gutxienez, pentsamolde horretan zirrikituak irekitzea. Bestela, galderak egin beharreen eta egin aurretik, pentsamoldea osatzen duten elementoek erantzuna prestaturik ematen baidigute. Galderak egitea, beraz, ez da jolasa, ez dohainik egin daiteken zerbait, gure izaera moldatzen duen pentsaera bera arriskutan jartzeko prestutasuna eskatzen duen zerbait baizik.

Hari honi eutsiz izenburuan aipatzen den identidatearekin hasiko naiz. Gure artean, eta euskal gizartearen historiaren baldintza jakin batzurekin loturik dagoelako, hitzetik hortzera erabiltzen dugun konzeptoa da identidatearena. Beste gizarte askotan ere, ordea, eta infokomunikazioaren eraginak direla eta, geroz eta sarriago entzun daiteke identidate hitza, geroz eta maizago jotzen da identidatearen infokomunikazioak izan ditzaken ondorioen aurrean.

Erabilera honek berak erakusten du infokomunikazioen hedatzeak dakartzan ondorioen aurrean babestu beharra dagoela: identidateak ustez adierazten duenera jotzeak horixe esan nahi baitu, kaltekoak izan daitezken eraginaren aurrean babesa bilatzen dela, identidateak suposatzen duen babeslekura jotzen dela.

Bainan identidatearen jotzeak badu beste alderdi bat: identidatearen babesleku da, babesleku izan daiteke identidatearen bera, bakoitzak berea, pertsonala bezala, talde gisa, babes-

ten baldin bada infokomunikazioen eraginak berekin dituen eraso guzien aurka. Egun hauetan aztergai izan den gaia, beraz, gehienei, eta senari bakarrik jarraiki, arrotzaren jantzi azaltzen zaie, arrotzaren arrisku guziekin jantzirik. Eta arrotz denaren aurrean sentitzen den babes beharra eragiten duen bilakaera bezala ikusten da. Babes hori identidate konzeptoan biltzen da. Eta identidate konzeptora bil daiteke, identidatearen arauzko den neurrian. Identidatearen babesaren eskeini dezaieke betikoa bada, ezinbestekoa bada, nahitaezkoa, derrigorrezkoa bada, aldakorra ez bada. Azken batean, eta oraingoraino infokomunikazioekin loturik, gizakiok historian zehar behin eta berriz egiten dugun oinarritzko esperientziarekin topatzen dugun: etengabeko aldaketaren aurrean aldaezina dirudien zerbait erai, eraso guzien aurrean aterpe bat, iraupenik ez duenaren aurrean babesleku bat. Identidatearen jotzeak, gaur egun aipatu berri dudako gizakion betiko joera horren seinale gisa funtzionatzen du. Beste garai batzutan mitoa zena, geroago erlijioak, ideologiak, Estatu nazionalak etab., orain identidatearen da.

Esan dudako bezala, identidatearen funtzio hori bete dezaieke arauzko den neurrian, normatiboa den neurrian, hau da: aldaketari aurre egiteko, arrotzatasunari aurre egiteko, iraupen ezari aurre egiteko beharrezkoak diren ezaugarriak oriturik badago. Eta ezaugarri horiek guziak arauzkotasuna esan nahi dute: identidatearen, den bezala, beharrezko bihurtzen da. Beharrezko izanik bakarrik lortzen baitu iraupena, aldakaitzatasuna, babes indarra.

Behartasun honek askatasunarekin, edo askatasun eza-rekin duen harremanaren azterketa gerorako utziz, heldu diezaiozun orain identidatearen arauzkotasunari, bere normatibo izateari. Izan ere, nire iritzian ez baitago identidatearen baino konzepto kontraesanezkoagorik. Gutako bakoitzak bere bizitza begietan hartzen badu, bizi dugun gizartearen nondik norakoa atzematen saiatzen bagara, bi kontrajarritako elementu ikusi ditzake berehalakoan: iraupena eta aldaketa.

Bizitza aldatzea esan nahi du. Hildakoa denak, bizirik gehiago ez duenak edo sekulan izan ez duenak bakarrik irauten du beti bere hortan. Bizia ezaugarri nagusia aldaketa da. Hans Jonas filosofiarik gerkerazko *metabolism* terminoa erabiltzen du bizia adierazteko, aldatu, eraldatu, transformatu esan nahi duena. Bizitza hori baita: inguruarekiko harremanean ingurua bereganatu, eraldatu eta horrela bizia den prozesoa sortu eta prozesu horri eutsi.

Aldaketa amaitzen denean bizia era amaitu egiten da. Biziduna den guziak dere burua gainditzen du etengabe, etorkizuneruntz zuzendurik dago, aldatzea eta bizi berria sortzea du nahitaezko helburu.

Bizitza aldaketa huts balitz, ordea, egoera baten eta hurrengoaren artean inolako loturarik ez balego, ezinezkoa litzateke bizia den prozesu hori entitate bakar bati, batasun bati atxekitzea, ezinezkoa izango litzateke zein den biziduna esatea, ezinezkoa gertatuko litzateke bizia bera izendatzea, ez bait legoke nori, zeri, zeini bizitza atxeki, non bizia ezaugarria, aldaketa bera, eskegi.

Identidatearen hitzegiterakoan, beraz, bi alderdiak dira kontutan hartu beharrekoak. Eta gizaki bakoitzaren nortasuna, giza historiako garai bakoitzaren izaera, dialektika honez osaturik dago: aldatzen jarraitu, aldaketan bizi eta aldatu bizi, une berean aldaketa guzi horiei batasun bat ematen saiatuz. Batzutan iraupena, aldaketa guzien gainetik aldakaitzatasunaren ilusioa sortzea izango da garai baten ezaugarri nagusia. Historian zehar kultura gehienak horrelakoak izan direla esatera ausartu ere egingo nintzateke. Giza bizitza bakanean ere

horrelakorik gertatzen da: gutako bakoitza bere zirrikiturik gabeko jaraipenezko batasunaren ilusioan bizi da, eta bere lanik garrantzizkoenetakoa da ilusio hori etengabe sortzen jarraitzea, hil artean. Aldaketak jakinaren gainean bilatzen dituena, aldaketak bultzatzen dituena, aldaketak gertarazi nahi dituena erasotzaile bat da, desordena dakarrena, soziologia klasikoaren hitzetan pertsonengan eta gizartearen anomia sortarazten duena, hau da: edozein gizarteren etsairik txarre-na, pertsoneri identitatea bat osatu ahal izatea eragozten duen anomia.

Horregatik, eta nahiz eta gizaki bakoitzari dagokionez eta gizarteei dagokienez dialektika izan, aldaketak berekin dakarren irekitasunaren eta batasuna sortu beharrak esan nahi duen itxitasunaren arteko dialektika, hala ta guziz ere bata, irekitasuna, gainditu beharreko arazo gisara ikusten da, eta horregatik burutu behararen garrantzi guzia itxitasunak sortzean jartzen da: dena, identitatea osatzen duten elementoak, ezinbestekoa bailitzan azaldu araztean, esperientzia ukatzean.

Modernitatearen amaierako garai hauetan, ordea, gertakizun bikoitz bat ematen da gure gizarteetan eta berauek osatzen dituzten hiritarengan. Batetik iraupenaren, aldaezintasunaren, betikotasunaren itxura sortu eta bermatzeko mekanismoak errotik jartzen dira zalantzan modernitateak berak sortu nahi dituen erakunde oinarri bezala. Kontraesaneko gisan formulaturik: oinarri sendorik gabeko oinarrietan eraiki nahi den kultura bat izango litzateke modernitatea.

Horregatik modernitatean sortu diren kontrajoera guziak abiapundu berdina izan dute: nonbait, nolabait zalantzaren menpeko ez diren oinarriak bilatzea. Aldakortasunaren azia, ordea, tradizioaren kritikaren azia, konplexutasunari eta berezitasunari bide ematearen azia ereinda egonik, modernitatearen kontrajoerak honen hutsuneak eta arriskuak begibistan jartzeko balio izan dute. Ez, ordea, modernitatearen aurrerantzako dinamika gelditzeko, ez, ordea, modernitatearen edozein erakunde zalantzan jartzeko gaitasunaren dinamika gelditzeko, ez, ordea, askatasun subjektiboaren eta erreflexibitatearen indarra eta dinamika geldiarazteko.

Askatasun subjektiboak eta erreflexibilitateak, aldiz, aldakortasunetik babestu nahi litzatekeen edozein erakunde kritikaren menpeko bihurtzen ditu, horrela aldakortasunaren ibaira itzularaziz.

Esan beharra dago, noski, modernitatearen ezaugarrietako bat, hain zuzen, askatasun subjektiboa eta erreflexibitatea berak erakunde nagusi bihurtu izatean datzala. Eta honek bultzatu du hainbat autore modernitateari agokion galdera nagusia formulatzera: erakundetu daiteke amairik gabeko erreflexibitatea? Zenbaiteraino izan dezake bermerik anitztasunean, askatasun subjektiboan eta erreflexibitatean oinarritutako kultura batek?

Modernitatearen izaera hau ez da hutsik ustezkoa, ideala, siniste edo pentsamendu batzutan agortzen den zerbait, errealitatean, biztanleriaren hiritartzean, bere mugikortasunean, industriaren garapenean, teknologiararen eta zientzien garapenean mamitzen den zerbait baizik.

Eta joera hauek jarraitu egiten dute. Gehiago oraindik: ez jarraitu bakarrik, baizik eta jarraipena bera bihurtzen da bere buruaren biderkatzaile. Jarraitze hutsak abiadaren etengabeko gehikuntza izugarria dakar.

Garro gure gaiak bere barnean dituen galderak laburki deskribatutako giroinguru horretan formulatzen dira. Identitatea bera aitopen baino gehiago galdera bihurturik dagoen

giroinguru batean, ezinbestekoa eta etengabeko abiada gehigarrian murgilduriko bilakaera zientifiko eta teknologiko baten giroinguruan. Ez dira, beraz, guziz berrikitan sortzen diren galderak, aspalditxotik datorren bilakaera baten barruan, honen sekulako abiada bizian sartzeak eraginik, sortzen diren galderak baizik. Infokomunikazioen eragina identitatean, beraz, iada oinarri sendoak galdu dituela nabari duen identitate batengan gerta daiteken eraginaren galdera bihurtzen da.

Zuzenean galdera hauek formulatzen hastera jo aurretik, ordea, orainarte esandakoaren haritik bi ideia aipatu nahi nituzke. Gorago esnda gelditu da historiako momentu gehienetan giza kulturak iraupena azpimarratzearen aldeko apustuak izan direla, betikotasunaren ilusioa sortzeko ahaleginak, behartasunaren indarraren agerpen. Eta behartasunean askatasunaren edo askatasun ezaren galdera aztertzea gerorako utzi dugu.

Momentu honetan ere ez dut galdera sakonean aztertuko. Bai erantsi, ordea, modernitatearen barruan, askatasun subjektiboaren grinak eraginda, galdera nabarmen aldatu egiten dela: ez behartasunean askatasuna ahal daiteken ala ez, askatasuna oinarri sendorik gabe ilusio huts bat ez ote den baizik. Hau da: askatasunik pentsa al daiteke tradizioaren kontra, askatasuna ahal daiteke erakunde sendorik gabe, askatasuna bizi al daiteke aldakortasun hutsean, askatasuna askatasunean oinarritu al daiteke, bere burua irensten duen pizti bihurtu gabe? Hara hor askatasunari dagozkion bi galdera, gerokoan aztertu beharko ditugunak: behartasunean ba al dago askatasunik? Askatasun hutsean ba al dago askatasunik?

Bigarren ideia: identitatearen oinarriak, tradizioa eta erakundeak, errotik zalantzan jarri dituen modernitatean identitateak bere babes mekanismoak, bere defentsa estrategiak garatu ditu. Identitateak, modernitatearen barruan oinarri sendoak bilatu nahi izan ditunean, ez du modernitate aurretiko garaietako "naturaltasunik" izan, kontrakorrantean berez erlatiboa, zalantzakoa den zerbaiten nahitaezko, ezinbesteko, derrigorrezko, bortxazko, indarrezko bihurtzean saiatu da oinarri sendoak bilatzen, eta honela totalitarismoarako joerak kutsaturik gelditzeko arriskuan egon da beti.

Badaude, beraz, modernitatean identitatea bermatzeko, oinarri sendoetan errotzeko ahaleginak. Baina ahalegin guzi hauek beti daude totalitarismoaren susmopean.

Aurreko minutuan infokomunikazioen gizarteek identitatean zernolako eragina izango dutenari buruzko galderak formulatzeko giroingurua laburki lantzen saiatu naiz. Pasa nadin orain galderak egitera. Galdera nagusia niretzako honako hau da: teknologia berriek, hauen garapenak eta hauen ustezko bilakaerak zer nolako eragina izango dute giza izaeran? Bilakaera teknologikoak ez ote dira giza izaeraren kontrako eraso zuzena?

Eta galdera hoiakin loturik beste hauek: giza izaera jakin bat, mamizkoa, definitzea ezinezkoa gertatzen bada ere, ba al dago mugarik, zeinek gaindituz teknologia berriak giza izaerari dagokionetik kanpo geldituko liratekeen eta horrela gizatasunaren aurkako bihurtuko liratekeen, eta horregatik salatu eta geldiarazi beharko genituzkeen, edo ta gutxienez, mugatzen ahalegindu, kontrajoerak, babesmodu berriak, sortuz eta garatuz?

Hasieran eta orokorrean identitateari buruz esandakoak jaso behar ditugu, beraz, berriro, orain infokomunikazioen eraginari aplikatuz: badago giza izaera definitu eta araukorik? Eta horrelako definizio arauko bat, normatibo bat eman ezin

badaiteke ere, badaude giza izaera aske bati nahitaezean jarri behar zaizkion muga arauzko batzu, normatibo batzu, zeinek gaintuz gero giza izaera desegin egingo litzatekeen?

Galdera hauek erantzuteak bi azterketa mota eskatzen ditu: batetik argitu zernolako den teknologia berrien izaera, zein presupostu dituzten, zein diren berekin dakartzaten ondorio gizartekoak eta kulturazkoak. Eta bestetik galdera hauek: noa definitu daiteke giza izaera, zein dira giza izaeraren mugi ezinezko mugak, horelakorik baldin badago?

Giza izaera definiturik, betikorik ez izatean datza. Giza izaeraren muina historiatasunean dago. Giza izaera bakarrik gizarte bakoitzak, garai bakoitzak sortzen duena da. Giza izaeraren muina bere moldagarritasuna da, finkaturik gabekoa izatea, hizkuntzan, hizkuntzetan etengabe asmatu beharrekoa izatea. Giza izaera beti da kulturalki eta historikoki definitua.

Ez da batere erraz, beraz, infokomunikazioen munduak dituen ezaugarriak giza izaeraren kontrakoak izan daitezkeen edo ez aztertzea, azken finean giza izaera definiturik ez bada. Orainartean kultura eta garai diferente guzitan gizakiok jakin izan baldin badugu gure izaera moldatzen, gure izaera proiektatzen eta asmatzen, baldintza eta egokiera nahiko ezberdinetara egokituz, zergatik izan behar du zailago, konplikatua infokomunikazioek berekin dituzten baldintzetara egokitzea? Ez ote da izango modernitatean, eta honek sortu duen zalantza eta kritikazko, erreflexiozko munduan, gizakiok jakin izan dugulako ziurtasunaren ilusioa eman zezakeen zerbait sortzen, jakin izan dugulako, lurraldean eta estatu nazionalen oinarriturik, giza banakoarentzat babesleku definitibo baten ilusioa sortzen?

Ez ote da izango teknologia berriek ekar dezaketen kontexto berrira egokitzeko zailtasunak ikusten ditugula azkena bizi izan dugun kultur modu honetan, eta kultur horren sustarrietan beraietan jarriko zegoen joeraren kontra, betikoa eta naturala dirudien, giza banako bakoitzari nahikoa identifikazio aukera, eta horrela identitatea moldatzeko aukera, eskeintzen zion zerbait, arauzkoa, normatiboa sortu delako, hizkuntza, nazioa, herria eta estadia elkarlotuz sorturiko babesleku "naturala"?

Bainan infokomunikazioak modernitatearen errotan jarriko zegoenari eusten dio, eta garatu egiten du, bere benetako joerekin jarraitzen du, joera horiek sakonduz, eta erreflexibitatea maila berri batera jasotzen du. Ez da, noski, gaur gertatzen ari den guzira infokomunikazio, bainan gaur gertatzen de guzira dago infokomunikazioarekin eta honek ahalbideratzen duenarekin loturik, dudarik gabe.

Erreflexibitatea aipatzen dudanean ez naiz ari gogoetak burutzeko giza ahalmenaz, pentsamendu bat, ohitura bat, tradizio bat, erakunde bat bat bere baitatik, naturaltasun guzian eta zuzenean bizi beharrean, kanpotik eta begi hotzez, begirada kritikoz ikusteko gaitasunaz baizik. Historian zehar gizakiek bere adimena erabili dute beraien gorpuzkera osatzeko. Hasieratan beraien gorputza eta indarra luzatuz. Geroago indar fisiko hori osatzeko eta mugikorrago, erabilgarriago egiteko. Geroago gizakien indar fisiko ordezkatzeko. Eta guzi hori, noski, adimena erabiliz.

Gaur berriz adimena erabiltzen du gizakiak bere adimena lekuan jartzeko, bere adimena ordezkatzeko, bere adimena luzatzeko, osatzeko, mugikorrago egiteko. Lurrinmakinak kulturaren aldaketa eragin bazuen, gizakiok geuron burua ikusteko modu berri bat esigutu bazuen, orain gertatzen ari denak aldaketa askoz sakonagoa esan nahi beharko luke: ezagutza bera da indar bihurtzen dena, ez bitarteko bezala indar fisikoaren mugak gaintzeko, bere mugak gaintzeko baizik.

Honek egoera berri baten aurrean jartzen du gizakia. Bilakaera guzi hau badirudi gizakiak orainartean berea bailliztan sentitu duen bere gorputzarekiko lotura hausten hasten dela, askatzen, lotura fisikoa izanik, orain inon kokatzea zaila gertatzen ari den eta leku hitza bera desegokia egiten duen hesparruren batetan balego bezala.

Esan berria dudana hau bi adibideren bitartez argitu nahi nuke. Infokomunikazioen munduan azken urte luzetan eman den bilakaerak norabide garbi bat du: hardware deritzonetik software izendatzen dena. Bilakaera horrek oinarri fisikoen garrantziaren gutxitzea eta atzeman ezina (intangible) denaren nagusitzen joatea adierazten du. Giza bizitza, gizarteak, komunikazioa, industria, teknologiak desgorpuzten doazela dirudi, masa fisikoa galtzen, atzeman daiteken, ikuitu daiteken gorpuzkerarik gabe gelditzen.

Bigarren adibidea zerbait diferentea da, eta lehen une batean aurrekoarekin harremanik gabekoa ematen du. Lotura hestua du, ordea, eta gainera nire iritzian garrantzi izugarrikoa da. Gaur eguneko teknika garapenak ahalbideratzen duen erreflexibitate mailak giza erakundearen eratzeko modu berri bat eskatzen du. Hori informatika zerbitzuen eraketan bertan ikusi ahal izan da. Hasieratan informatika zerbitzuen eraketa ierarkikoa zen. Ordenagailu zentralak ziren garrantzizkoak, eta haiekin ematen zen bezero guzientzat zerbitzua. Laister batean, ordea, sareak izan ziren nagusi, sistema periferikoek hartu zuen agintea. Sarean funtzionatzeak informazioa jasotzeko, -gogoratu ezagutzaren garrantzia-, gaitasun haundiagoa esan nahi du, informazioa lantzeko gaitasun haundiagoa, erabakiak hartzeko malgutasun haundiagoa, eta beharrezko egiten duena ez da zentro baten agintea, koordinazioa baizik.

Adibide hauen bitartez argitu nahi zian ditudan joera hauek, erreflexibitatearen gehitzea, kalitatez maila goragoko batera iristea, jarraitu egingo dute, haunditzen joango dira, horiek ezarritako baldintzetan asmatu beharko du gizakiak bere izaera moldatzen, jakinik betiko izaera natural baten jabe ez dela.

Bainan moldaketa horretarako bado mugarik? Edozertara moldatu al daiteke gizakia? Bere buruaz nahi dezakeena egin al dezake, bere buruaz beste egiteraino? Askatasun osoko al da gizakia, ala bere askatasunean mugatua, muga batzuren barruan bakarrik izan daiteke aske gizakia?

Lehen erantzun batek begibistakoa ematen du: gizakiak berak sortzen duena izan al daiteke gizakia bera gaintzeko moduko, gizakia bera ezinezko egiteko moduko? Ekologiaren mundura begiratzen badugu, badirudi baietz. Ekologia hesparruan gertatzen denak zera jartzen baitu gure begien aurrean, zenbateraino gizakiak bere baitan agintea den ezagutza pilatu duen, aginte eta ezagutza hori gidatzeko beharrezkoak liratekeen irizpideak garatzeko ahalmenik izan gabe une berean, hau da: teknika mailan erraldoi, moral mailan ipotx egin duelarik bere burua.

Teknologia berri guziak eta hauek oinarritzen den infokomunikazioaren kultura berriak esan nahi dutenaren eta suposatzen duten eronkaren aurrean ezin konforma gintzeko gizakiok sortutak direnez gero gure antzekoak izango direla, gure modukoak, gure tamainakoak izango direla erantzunez.

Azken batean ezin baztertu bai dezakegu historiak eta historiako giza esperientziak eskura ematen digutena: gizakiek beti, behin eta berriz, aldaketa guzien barruan, eta erreflexibitate maila haundiagoak lortzen joan arren, aterpea bilatu eta sortu duela, babeslekuren bat, oinarri sendoren bat. Jakin badakigu, eta arestian neuk azpimarratu dut hori, aterpe, babesleku, oinarri sendo horietako bakoitza historiaren dela,

balizkoa, kontingentea, hau da: ez dela beharrezko. Eta historiaren aldaketak honen lekuko. Jakin badakigu, baitere, aterpe, babesleku, oinarri sendo horien askatasunarekiko harremana ez dela arriskurik gabea, askotan askatasunaren itoleku ere bilakatu direla.

Bainan zerbaitek bultzatzen du gizakia beti horrelako zer-bait bilatzera. Kolakowski filosofiaren hitz batzu errepikatuz, badirudi gizakiak kondenaturik daudela, Sisifo bat bailiran, bi muturren artean amairik gabeko joan etorrian ibiltzera. Kolakowski-k dio gizakiak hasieratik bere egoeraren kontra erreboltarik egin ez balute, oraindik kobazulotan biziko ginatela. Bainan baitere badio: gizakion errebolta inoiz osoa, guzizkoa, betea suertatu izan balitz, berriro ere kubazulotan bizitzera itzuliak izango ginatela.

Orainartean historia guziaz bi mutur horien artean mogitu bada, aldaketen barruan oinarri sendoak proiektatuz eta sortuz, oinarri sendoen barruan aldaketak probokatuz, eta historia horren azken zatian, modernitatearen oreka hori, bi muturren arteko hesparru hori lertzeko zorian egon bada, hau da, gizona bere buruak antza beharrezkoak dituen baldintzak hausteko arriskuan egon bada, arrisku hori lekukotasunarekin loturiko estatu nazionalen ekidin duen arte, ez ote dago orain, infokomunikazioaren bitartez, eta honek esan nahi duen guziaren bitartez, ezagutzaren, hau da, erreflexibitate osoaren bitartez, ierarkiazko eraketa guziak baztertzearen bitartez, ez ote ditu giza izaerak bere burua modu aldakor batean behin eta berriz moldatu ahal izateko beharrezkoak dituen baldintzak hausten eta gainditzen?

Hori da iada gure artean dagoen eta oraindik indar handiagoz datorkigun mundu berriaren aurrean, infokomunikazioen aurrean egin beharreko oinarritzako galdera. Badakit oso orokorra dela, bainan iruditzen zait guziz beharrezkoa dela oinarritzako galdera nagusiak bere orokortasunean planteatzea, bestela, eta esan ohi den bezala, horrenbeste zuhaitzez basoa ikusteko gaitasuna galtzen dugulako.

Konkretoago esanaz: zenbaiteraino urrundu daiteke gizakia bere gorputzezko baldintzetatik? Bere gorpuzkerak ez al du gizakia leku eta une batera lotzen? Zenbaiteraino gainditu dezake gizakiak bere lekuarekiko eta denborarekiko lotura, zenbaiteraino luza ditzazke bai bata, bai bastea? Ezagutzaren geroz eta nagusitasun handiagoak non uzten du sentimenduzko gizakia? Loturarik sortu ahal izango al da infokomunikazioen munduan nagusi den ezagutzaren eta bazterrean gelditzezko arriskutan gera daitezken sentimenduen artean? Lekukotasuna eta errealtatearekiko erreferentziak galduz, nola aurki dezake gizakiak bere burura itzultzeko bidea? Lekukotasuna galdurik eta errealtatea birtualizaturik dagoen infokomunikazioen munduan, non koka ditzazke gizakiak bere izateari zentzua eman ahal izango dioten erreferentzia puntuak?

Azken galdera hauek oraindik gahiago konkreta daitezke, bai ekonomia mundura zehatzago begiraturaz, eta arlo horretan globalizazioaren ondorioak aztertuz, bai politika mundura begiraturaz, eta hemen estatu nazionala gainditzeak dakartzan ondorioak bai demokraziarentzat, bai hiritarren parte hartzeko aukerentzat, aztertuz. Guzi horrek, ordea, oso luze joko liguken.

Aipatu ditudan, formulatu ditudan galderak horrela jartzek ez du esan nahi infokomunikazioen mundua erabat modu kritikoa batean ikusten dudarik, eta horrela baloratzea nahi nukeenik. Ezta gutxiago ere. Bere baitan murgildurik gauzkan bilakaera hau modernitatearen jarraipena dela esan dut, eta modernitatean aipatzen ari naizen gisako arazoak planteatu dira. Gogora erromantizismoaren erreakzioa Ilustrazioaren

aurrean. Gogora, baita ere, ezker humanistatik eta ezker marxistatik modernitateari eginiko kritika zorrotzak. Gogora Ilustrazio asegabeaz hitz egiten duten autoreak, Ilustrazioaren dialektikaz mintzatzen direnak.

Infokomunikazioen munduaren aurrean ere jarrera kritikoa bat beharrezkoa da, noski. Bainan ez litzateke nire iritzian ez zillegi, ez egoki izango, datorrena besterik gabe arbuatzea. Eta horretarako beharrezkoa da lehen birritan aipatu dudan identitatearen eta askatasunaren arteko harremana aztertea.

Identitatearen normatibotasunak, behartasunak askatasuna ito lezake, eta horretarako joera du. Oinarriarik ezak, aterperik ezak, babeslekurik ezak era berean ezinezko egiten du askatasuna. Modernitateak bata borrokatu badu, behartasuna, beste muturrean erortzeko arriskua sortu du, eta arrisku hori ekiditzeko estatu nazionala sortu du, honek berarekin ekarri dituen gerrate eta txikizio guziekin.

Baita ere esan dugu, historiak identitatearen beharra eta identitateak gainditu beharra erakusten digun bezala erakusten digula, baita ere, garai bakoitza orainartean gai izan dela maila goragoko batean oreka berri bat aurkitzeko. Modernitateak oreka hori askatasuna, eta askatasunarekin batera, pluraltasuna, erakundetuz lortu du. Hori bai, aipatu berria dudana astatu nazionalaren baitan.

Zergatik ez da oreka berri bat ahalezko izango erreflexibitate maila handiago batetan? Orainarteko oreka berri gehienek, denek ez bada ere, askatasun apur bat gehiagorentzat leku egitea ere esan nahi izan baitute. Zergatik ez pentsatu infokomunikazioen munduan ere gai izango garela oreka berri bat lortzeko? Horretarako, ordea, goragoko galderetan aipatzen diren eta inplikaturik dauden arriskuen jabe izatea da lehenengo baldintza. Orainartean, aldaketaren kontra aldaezina, naturala, betikoa zirudien zerbitu sortu izan badute gizakiek historian zehar, zergatik ez pentsatu etorkizunean aldaeketa bera izango dela erakundetua, modernitatean askatasuna eta pluraltasuna izan diren bezalaxe, eta hauei uko egin gabe, bere izaera aldakorren bermatuz baizik.

Guzi hau dela eta, ez da nahikoa, nire ustez, infokomunikazioak bere baitan dituen elementoen aurrean, globalizazioaren aurrean, gizakiek beti beharko dutela lekuneari espazioari lotutako erreferentzia punduren bat esatea, globalizazioak berak dakarrela lokalaren berbaloratze bat, ezagutzaren nagusitasunaren eta atzeman ezinaren aurrean materialismo bitalista berri bat, sentimenduen berbaloratze bat gartatzen ari dela. Honelako erreakzio batek arrisku izugarri bat ezkutatzen du bere baitan.

Izan ere, egia baita Alain Tourain frantziar soziologoak bere azken liburuan dioena, gaur egun sujetoaren zatiketa garrantz baten aurrean gaudela, alegia. Batetik ekonomiaren eta infokomunikazioen globalizazioa, bere baitan hutsa dena, giza zentzurik ez duena; eta bestetik norbere kulturaren gehiegizko azpimarratzea, norbera bere kultura istea, identitatearen politika fundamentalistak globalizazioaren zentzu hutsaren aurrean.

Esan nahi dut: infokomunikazioen eta globalizazioaren minduak arriskuak baldin baditu, arriskuak ditu, baita ere, arrisku horiek direla eta horien aurreko erreakzioek. Eta ez arrisku txikiagoak. Infokomunikazioen eta globalizazioaren munduak gizakia bere uka ezineko baldintzetatik husterik uzteko arriskua badu, gogora goian formulatu ditugun galderak, arrisku horren aurreko erreakzioek fundamentalista bihurtzeko arriskua dute, fundamentalismoa, totalitarismoa eraman dezakete bere sabeleko ezinbesteko ume bezala.

Bilakaerak eskatzen duen oreka ezin izan daiteke eten bat. Gerta daiteke aurrerantzeko orekek orainartekoen bermerik ez izatea. Neurri horretan askatasunak gauzatzeko aukera zabalagoak izango ditu. Baina garrantzikoena beste hone-taz jabetzea da, nire iritzian: gorputzarekiko loturak beharrez-koak izango dira etorkizunean, lekuarekiko erreferentziak ezin desagertu ahal izango dira guziz giza bizitzatik, gizakiak nola-bait lekuarekin eta mementuarekin loturik jarraitu beharko du. Baina lotura guzi horiek beste forma berriak har ditzazkete eta hartu beharko dituzte, fundamentalismoaren arriskuan erori nahi ez badute.

Ez litzateke zuzena izango orainartekoak ez direlako guziz desagertu egin direnik esatea. Eta hor dago arazo guziaren gakoa: gizaki izateko modu berriak ikasi beharrea aurkitzen garela, gure gorputzezko baldintzak modu berri batean ikusten ikasi behar dugula, gure lekuarekiko eta den-borarekiko harremana modu berri batean lotzen ikasi behar

dugula, gure gizartezko izatea, territorialtasunari eta nazional-tasunari dagokionetan, berformulatzeko ikasi behar dugula. Ohizkoari etengabe agur esaten ikasi behar dugula, jakinik akdaketa bera bakarrik izan daitekeela etorkizunean aterpe eta babesleku. Ez dago helbururik, bidea bera da helburu.

Agian hori da kezkatzen gaituna. Horrek bultzatzen gaitu infokomunikazioen munduak giza izaera ezinezko egiten duela pentsatzera: ohizkotasunetik irten beharrak eragiten digun beldurrak. Baina gertatzen ari denaz jabetuz, eta gertatzen ari denak dituen arriskuaz jabetuz, konzienteki oreka ahulago-ak eta askeagoak bilatzen ez baditugu, Tourain-ek deskriba-tzen duen zatiketa garrantzean eror gintezke, eta zatiketa horre-tan biak izango genituzke: infokomunikazioen eta globalizazio-aren hutsune osoa giza zentzuari dagokionetan, eta horren aurrean fundamentalismoaren totalitarismoa.

Askatasun apur bat gehiago probatzeko arrazoi ederra!